

LABURPEN EXEKUTIBOA
ORKESTRAKO KOADERNOAK

11/2021

ISSN 2340-7638

BERRIKUNTZA GIPUZKOAN. AZTERKETA KONPARATUA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



GIPUZKOA
ETORKIZUNA ORAIN

Mikel Navarro Arancegui

2021

Laburpen Exekutiboa. Orkestrako Koadernoak, zk. 11/2021

Laburpen Exekutiboa

Azterlan hau Eustatek eta Eurostatek argitaratutako berrikuntzako inkestean datuetan oinarritzen da. Lehenengoak establezimendua hartzen du estatistikako unitatetzat eta 2019 urteari dagokio. Bigarrenak, aldiz, enpresa eta 2018 urtea. Datuak konparagarriagoak eta fidagarriagoak izateko, azterketatik at utzi dira atal gehienetan 10 langile baino gutxiagoko unitate estatistikoak eta baita merkantilak ez diren edo profil berritzaile apalagoa duten sektoreak (hots, ez-core sektoreak).

Lurralde bateko berrikuntzako portaera eta emaitzak erlazionatuta agertu ohi dira bai sektore batzuekin (I+Gko zerbitzuak eta industria), bai unitateen tamaina-tarte batzuekin (enpresa handiak) eta enpresen jokabide batzuekin (esportazioak, kooperazioa eta langileen kualifikazioa). Beste lurraldeetakoan aldean, Gipuzkoako **enpresek** balio aski handiagoak dituzte I+Gko zerbitzuen espezializazioan, kooperazioan eta hirugarren mailako heziketa duten langileen ehunekoan; eta, hein txikiago batean, baita Industrian eta esportazioan ere. Aldiz, enpresa handien ehunekoa txikiagoa da Gipuzkoan (eta enpresa handi horiek tamaina txikiagokoak dira).

Horrek eta Gipuzkoako enpresen portaera berritzaile partikularrak ekartzen dute Gipuzkoan eta EAEn (**EIN**) **jarduera berritzaileak izan dituzten unitateen** ehunekoak (%43 eta %42, hurrenez hurren) EB27koa (%50) eta, batik bat, Alemaniakoa (%68) baino txikiagoak izatea. Gipuzkoako emaitza txarrago hori tamaina txikiko unitateei zor zaie. Izan ere, tamaina ertain eta handikoetan Gipuzkoa EB27ren dezente gainetik dago, eta Alemaniatik hurbil.

Produktuko edo prozesuko **berrikuntzak egin** dituzten establezimenduak %41,9 dira Gipuzkoan. Ehuneko hori handiagoa da Industrian core-Zerbitzuetan baino (%45 vs %38); eta, halaber, zenbat eta goragoko tamaina-tartekoa izan, orduan eta handiagoa izaten da berritzaileen ehunekoa (%34 txikietan, %76 ertainetan eta %83 handietan).

2018tik 2019ra egondako hazkunde biziaren ondoren, **produktuko berrikuntzan** Gipuzkoa EB27ren parera iritsi da (%31 vs %30), baina oraindik ere Alemaniaren atzetik segitzen du (%40). **Prozesuko berrikuntzan** Gipuzkoa eta EAE (%37 eta %36) erdibidean aurkitzen dira: Espainiaren gainetik daude (%24), baina EB27 eta Alemaniaren azpitik (%41 eta %55). Prozesuko berrikuntzen barruan bereiztu daitezkeen hiru azpi-motei dagokienez, antolamenduko berrikuntzan (batez ere, lan-tokiaren eta giza-baliabideen antolakuntzan) dabil Gipuzkoa atzeratuen. Oro har, berrikuntza-mota horietan Gipuzkoako emaitza hobekien lortzen ditu core-Zerbitzuetan eta tamaina ertaineko establezimenduetan; eta okerragoak, Industrian eta establezimendu txikietan.

Berrikuntzako gastuaren azterketan berebiziko eragina du (ZTBES) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarearen berezitasunak. Sare honetako kategoria teknologikoetan erregistratuta dauden entitate gehienak, core-Zerbitzuen barruan dauden I+Gko zerbitzuetan kontabilizatzen ditu Eustatek. I+Gko zerbitzuak azterketatik at uzten ez badira, Gipuzkoaren berrikuntzako gastua salmenten ehunekoan adierazita nahiko garaia da (%2,8), eta core-Zerbitzuen berrikuntzako gastu-intentsitatea neurritz kanpokoak. Baina I+Gko zerbitzuak azterketatik at uzten badira, emaitza ezohiko horiek desagertzen dira hein handi batean: salmenten ehunekoan adierazitako Gipuzkoako berrikuntzako gastua (%1,9) bai EB27koaren (%2,2) eta bai Alemaniakoaren (%3,3) azpitik gelditzen da; eta Gipuzkoako core-Zerbitzuen berrikuntzako gastua (%1,4) Industriakoa (%2,1) baino txikiagoa da, eta EB eta Alemaniakoaren parekoa (%1,4).

EBn eta Alemanian berrikuntzako gastu gehiena enpresa handiei dagokie. Gipuzkoan, berriz, establezimendu ertainei dagokie. Horretan zerikusia dute Gipuzkoa enpresen egiturak eta ZTBESren berezitasunak.

Berrikuntzako gastu guztitik (**barneko zein kanpoko**) **I+Gari** dagokionak Gipuzkoan %84 iristen du: EBkoa (%63) eta Alemaniakoa (%57) baino dezente handiagoa. Bai hori eta bai azterlanean azpimarratzen diren beste zenbait anomalia nolabait txikiagotu egiten dira, lehen bezala, I+Gko zerbitzuak azterketatik at uzten badira. Horrela eginez gero, Gipuzkoako balioa %84tik %80ra jaisten da, oraindik ere aski garaia jo daitekeena, Gipuzkoan enpresa handi gutxi dagola kontuan izanda.

I+Gko zerbitzuak azterketatik kanpo uzten badira, kanpoko I+Gak guztizko I+Gan iristen duen ehunekoa ere zuzentzen da: %19tik %25era igotzen da, eta EBko eta Alemaniako ehunekoen gainean (%20 eta %16) jartzen da. Gipuzkoan dagoen kanpoko I+Grako jotze handiago hori bat dator lurralde horretan dagoen ZTBES indartsuarekin. Lurralde guztietan enpresa handiek kanpoko I+Gra gehiago jotzen dute; eta Gipuzkoaren kasuan, kanpoko I+Grako jotzea txikiagoa da EAeko baino.

2018tik 2019ra **produktu berri edo hobetuen salmentak** 7 puntu portzental (pp.) igo ziren eta salmenta guztien %24ra iritsi: EAeko, Alemaniakoa eta EB27koa baino aski handiagoa (6 pp., 9 pp. eta 12 pp. handiagoa, hurrenez hurren). Gipuzkoako %24 horietatik, %17 enpresarako berriak dira eta %7 merkaturako berriak.

I+G+Bn kooperatzen duten EINen ehunekoa Espainian, EB27n eta Alemanian %25 inguru dabil; Gipuzkoan eta EAEn, aldiz, bi halakoa da: %56 eta %52. Alde hori mantentzen da, oro har, alderaketa sektoreka eta tamaina-tarteka egiten denean. Gipuzkoan dagoen I+G+Bko kooperazioa gehienbat erregio bereko jarduleekin egiten da. Atzerriko jarduleekin I+G+Bn kooperatzen duten enpresen ehunekoa txikiagoa da Gipuzkoan (%28) EBn baino (%43). Balio-kate bereko agenteekin (hots, hornitzaile eta bezeroekin) eta unibertsitatearekin izaten den kooperazioa txikiagoa da Gipuzkoan EBn baino; baina, aitzitik, kontsultari eta laborategi komertzialekiko kooperazioa handiagoa da Gipuzkoako enpresetan EBkoetan baino.

Laguntza publikorik jasotzen duten establezimenduak Gipuzkoan %36 dira (%69 EINen kasuan) eta I+G+Brako laguntzarik jasotzen dutenak %21 (%57 EINen kasuan). Ehuneko horiek EAeko baino zertxobait garaiagoak dira, eta gutxi gorabehera EBkoak baino bi bider handiagoak. Gipuzkoan eta EAEn oso nabaria da erregioko edo tokiko Administrazioen laguntzak jasotzen duten enpresen ehunekoa: Espainiakoa baino hiru aldiz handiagoa. Laguntza publikoak jasotzen dituzten enpresen ehunekoa handiagoa da Industrian, core-Zerbitzuetan baino; eta ehuneko hori handituz doa, tamaina-tarteetan gora joan ahala. Gainera, laguntza publikoak jasotzen dituzten establezimendu handien eta txikien artean dagoen aldea handiagoa da Gipuzkoan EAEn baino, Gipuzkoako enpresa txikiek erlatiboki laguntza publikoak iristeko zailtasun handiagoa izatearen seinale izan daitekeena.

Berrikuntzarako hesi ertain edo handiak somatzen dituzten enpresen ehunekoa handiagoa da Gipuzkoan (%44) EBn baino (%34). Oro har, merkatuari lotutako oztopoak (adib. eskariari buruzko ziurtasun-eza eta lehia bizia) finantza izaerakoak (adib. barneko edo kanpoko finantzabide urri, laguntza publikorik eskasia, kostu garaiak...) bezain garrantzitsuak dira. Jakintzari lotutako oztopoek (adib. barnean pertsonal kualifikaturik ez egotea, kanpoko jakintza edota lankidetzarako sozioak eskura ez izatea), aldiz, aurreko biek baino garrantzi gutxiago dute. Beste lurraldeen aldean, Gipuzkoan kostu garaiek eta eskariari buruzko ziurtasun ezak axola handia dute. Era berean, laguntza publikoak izateari garrantzia handia ematen zaio, seguru aski Atzeraldi Handian laguntza horiek izandako murrizketatik, nahiz eta oraindik laguntza publiko horiek ugariagoak izan Gipuzkoan beste lurraldeetan baino. Gainera, bai Gipuzkoan eta bai beste lurraldeetan, EIN direnek berrikuntzarako oztopo handiagoak somatzen dituzte ez-EINek baino. Adituen ustez, bi faktore egon daitezke fenomeno horren atzean: batetik, berrikuntzak egiten hasi eta oztopoekin topo egin arte, enpresa hesi horien neurriez ezin jabetzea; bestetik, aurreko urtealdietan berrikuntzak eginak izateagatik –edo beste arrazoiengatik– ez-EIN barruan berrikuntzaren beharrik ez duten unitateak egotea.

Azkenik, gorako azaldutako diagnostikotik zazpi gomendio handi jalgitzen dira.

1. EBekin eta Alemaniarekin konparatuta Gipuzkoak duen **establezimendu berritzaileen ehuneko** apalagoa –tamaina txikiagoko enpresei zor zaiena– handitzeko asmoz, bi politika edo neurri mota sustatu litezke: batetik, egitura produktiboan enpresa handien pisua handiagotzeko politika orokorrak indartzea; bestetik, tamaina txikiagoko enpresen premia eta ezaugarriei berrikuntzako egitarauak gehiago egokitzea.
2. Berrikuntzako egitarauen artean **antolamendu berrikuntza** helburu dutenak indartu beharko liriateke, eta batik bat giza-baliabideen eta lan-tokiaren antolamendua hobetzera zuzendutakoak. Orkestrak (2019) diagnostikatu zuenez eta azterlan honetan berretsi denez, giza-baliabideen alorrean arazorik larriena ez datza haien urritasunean, haien kudeaketan eta erabileran baizik.
3. Enpresa txikientzat aparteko garrantzia izanda eta arlo horretan Gipuzkoak duen atzerapena ikusita, **I+Gan oinarrituta ez dagoen** berrikuntza-gastua sustatu behar da gehien. I+Gko gastuari dagokionez, enpresa txikiak **kanpoko I+Gaz** gehiago baliatzera bultzatu beharko litzateke. Horretarako, bai eskaintzan (I+Gko azpiegituren funtzionamenduan eta konposizioan), bai eskarian (enpresa txikiek I+Ga azpikontratatzeko egitarauak) eta bitartekotzan eragiten duten ekimenak mesedegarriak izango liriateke.

BERRIKUNTZA GIPUZKOAN. AZTERKETA KONPARATUA

4. Orain arte bertako politika publikoek bultzatutako **lankidetzako** printzipioari eutsi beharko litzaioke, baina atzerrikoekiko, balio-kateetako hornitzaile eta bezeroekiko eta unibertsitatearekiko lankidetzak gehiago indartuz.
5. **Laguntza publikoak** jasotzen duten enpresa gipuzkoarren ehunekoak hain handia izanda, indarrean dauden egitarauen eragin edo inpaktua sakonki ebaluatu beharko lirateke. Gainera, aztertu beharko litzateke –eta ahal den neurrian zuzendu– Gipuzkoako enpresa txikiek zergatik eskuratzen duten laguntza publiko gutxiago EAEko gainerako enpresa txikiek baino.
6. **Berrikuntzarako hesi** finantzarioak bezain garrantzitsuak dira merkatuei buruzkoak (hots, eskari- eta lehiaketa-politikak). Politika publikoen egitarau-multzozan arlo honetan dihardutenak indartu behar dira (adib. erosketa berritzaileko ekimenak) bereziki.
7. Publiko egiten diren **berrikuntzako estatistika, datu eta analisisiek** ahalbidetu behar dute ZTBESren berezitasunak enpresen I+G+Bko gastuan sortzen duen eragina bereiztea eta nazioarteko alderaketetan sortzen dituen desitxuratzak saihestea.



Orkestra

LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es